

2010-03-16ko EZOHIKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamargarren urteko martxoaren hamaseian, arratsaldeko 20:00ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: M^a Jesús Otaño Zumeta, Gregorio Lasa Etxezarreta eta Aitor Lasa Olalde jaun/andreak.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (10-01-26).- 2010eko urtarrilaren 26ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, udalbatzak aho batez onartzea erabaki du.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio udalbatzari:

-2010-01-10ko 1/10 Dekretua: Joxean Iturgintza, Iratze Lorazantza eta Estudios Geotecnicos Aymat S.L.U. gastuen xedapena onartzea.

-2010-01-19ko 2/10 Dekretua: Gipuzkoa Donostia Kutxari kontu korrante berria irekitzeko baimena ematea.

-2010-01-19ko 3/10 Dekretua: Construcciones Fresneda S.L.-ri 9.790,43 €-ko fidantza itzultzea.

-2010-01-20ko 4/10 Dekretua: Juan Jose Zubeldia Iraolari Agerre baserria eraberritzeko lizentzia ematea.

-2010-01-21ko 5/10 Dekretua: Iñaki Arregi arkitekto teknikoarekin kontratatzea San Migel Plazaren zati bat birgaitzeko lanen proiektua idazteko eta

zuzentzeko zerbitzua.

-2010-01-21ko 6/10 Dekretua: udal honetako funtzionarioen eta lan kontratupeko langileen ordainsariak %1,8 igotzea 2009ko ordainsariekin alderatuta.

-2010-01-25ko 7/10 Dekretua: 44.089,45 €-ko abenduko hilabeteari dagozkion fakturak onartzea.

-2010-01-28ko 8/10 Dekretua: 2.932,61 € likidatzea 2009ko 4. hiruhilekoan erabilpen pribatiboa egiteagatikako tasa.

-2010-01-28ko 9/10 Dekretua: 382,87 € likidatzea 2009ko 4. hiruhilekoan erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatikako tasa.

-2010-02-01ko 10/10 Dekretua: Itxaso Urretagoiena Arruabarrenaren kontratazioa baimentzea gizarte langile lanposturako.

-2010-02-03ko 11/10 Dekretua: Trakzio mekanikodun ibilgailuen zergari buruzko 2010eko errolda onartzea.

-2010-02-03ko 12/10 Dekretua: udal langileen 2009 urtean egindako aparteko orduak onartu eta ordaintzea.

-2010-02-03ko 13/10 Dekretua: Zaharren Biltokia eta taberna eraberritzeko lanak kontratatzea.

-2010-02-03ko 14/10 Dekretua: Ainhoa Altuna Tolosari ondasun higiezin gaineko zergaren kuotaren %50eko hobaria ematea.

-2010-02-11ko 15/10 Dekretua: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren diru-laguntzen emakidaren 6/2010 zenbakidun deialdian egin beharreko obra proiektu edo zerbitzuak onartzea.

-2010-02-23ko 16/10 Dekretua: José Ignacio Echeverria Izaguirreri 2.880 €-ko fidantza itzultzea.

-2010-02-24ko 17/10 Dekretua: José Antonio Iturbe Amonarrizek eraiki duen ukuiluaren jarduera ez legeztatzea.

-2010-02-26ko 18/10 Dekretua: Mondo Ibérica S.A.ri 2.103,30 €-ko fidantza itzultzea.

-2010-03-01ko 19/10 Dekretua: Bienvenido Gil S.L.ri 874,90 €-ko fidantza itzultzea.

-2010-03-01ko 20/10 Dekretua: 0555-CCS matrikula duen ibilgailua tratatzea eta suntsitzea.

-2010-03-01ko 21/10 Dekretua: Asmatu S.L.-ri 586,50 €-ko fidantza itzultzea.

-2010-03-02ko 22/10 Dekretua: 5.000 € onartzea gizarte larrialdiko laguntzetarako.

-2010-03-04ko 23/10 Dekretua: 67.078,95 €-ko urtarrileko hilabeteari dagozkion fakturak onartzea.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL HONETAKO 2010KO EKITALDIARI DAGOKION AURREKONTUA.

Udalaren Aurrekontu Orokorren berri eman da. 2010eko jarduera ekonomikorako aurrekontua da; udalaren berezko aurrekontua da soilik. Korporazioko lehendakariak aurkeztu du, udal honetako idazkaritza-kontuhartzaitzak informatuta. Aurrekontuari erantsi zaio Aurrekontua Betearazteko Udal-araua.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera osatu da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Haserako defizit gabe agertu da eta korporazioko udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztu zaio onartu, itzuli edo zuzen dezan.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez, aipatutako apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 18. artikuluan eta ondorengoetan erabakitakoa jarraituz:

Lehen.- Irurako Udalaren 2010 urteko Aurrekontu Orokorra behin-behinean onartzea. Udalaren berezko aurrekontua da soilik. Gastu eta sarrerren egoera atalka laburtuz gero, honela gelditzen da:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	446.000,00
2	Zeharkako zergak	30.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	311.600,00
4	Transferentzia arruntak	842.000,00
5	Ondarezko sarrerak	11.000,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	80.000,00

7	Kapital transferentziak	35.000,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak	1.000,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		1.757.600,00

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK	IZENDAPENA	EUROAK
1	Pertsonal-gastuak.	708.000,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan.	571.500,00
3	Finantza-gastuak.	1.000,00
4	Transferentzia arruntak	229.100,00
6	Inbertsio errealak.	80.000,00
7	Kapital Transferentziak.	113.000,00
8	Aktibo finantzarioak.	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak.	54.000,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		1.757.600,00

Ez da berezko Aurrekontu Orokorra deskribatu, honen errepikatze hutsa delako.

Honela, 2010ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udal-araia onartu da.

Gainera, aurrekontua gauzatzeko oinarriak ere onartzen dira.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz hamabost egun eraginkorrez, erreklamazioak egin ahal izateko. Aurrekontua erabat onartutzat joko du udalak aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da atalka laburtua.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko du udalak Gipuzkoako Foru Aldundira.

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurrikusitako eran argitaratua izan ondoren.

Gainera, aurrekontuaren kopia bat eta bere aldaketak jendearen eskura egongo dira informazioa izan dezaten, behin betiko onartzen den unetik jarduera bukatu arte.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin

da inongo errekurtsorik jarri.

Erabaki hau ez da behin betikoa administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, 2010KO EKITALDIARI DAGOKION UDAL HONETAKO PLANTILLA ETA LANPOSTUAREN LANGILEEN ZERRENDAA.

Langileen plantila organikoa eta 2010ko jarduera ekonomikorako lanpostuen zerrendaren berri eman dute. Aurreko urtealdiko berbera da, aldaketa hauekin:

A) Lan postu hauek desagertuko dira, amortizatuak izan direlako:

-Jakinarazle Agentea.

B) Loatzo Mankomunitatearen betebeharrak ikusita:

-Idazkari-Kontuhartzaileak hango erantzukizunak berak hartu ditu eta hilero 400 €-ko ekarpena egingo du Mankomunitateak eta hori agertu behar da.

-Administraria, Mankomunitatearen arazoak konpontzeko baina noiz behinka bakarrik.

Aldaketa horiek udalbatzak onartzea erabaki du.

Erabaki hau ez da behin betikoa administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

“IRURAKO SAN MIGEL PLAZAREN ZATI BAT BIRGAITZEKO” PROIEKTUAREN KONTRATAZIOA HASTEAN ETA BALDINTZAREN PLEGUAK ONARTZEA.

“Izurako San Migel Plazaren zati bat Birgaitzeko” lanak Tokiko Enplegu eta Egonkortasunerako Estatu Funtsean sartu dira, 118.617,93 euroren truke (BEZ barne), Lurralde Kooperazioko Estatuko Idazkariak 2010eko otsailaren 22an hartutako Erabakiaren bidez. Hori guztia, urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege

Horiek horrela eta kontratazio prozedura hasteko eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 94. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Udalbatzak hau erabaki du aho batez:

La obra de “Rehabilitación parcial de la Plaza San Miguel de Irura” ha quedado incluida en el Fondo Estatal de Empleo e Innovación Local de 2010 por importe de 118.617,93 euros (Iva incluido) por Resolución del Secretario de Estado de Cooperación Territorial de fecha 22 de febrero de 2010. Todo ello de acuerdo con el Real Decreto-Ley 13/2009, de 26 de octubre.

Ante ello y de cara a iniciar el procedimiento de contratación y de acuerdo con lo dispuesto en el art.94 de la Ley 30/2007, del 30 de octubre de Contratación del Sector Público, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

1.- "Irurako San Migel Plazaren zati bat Birgaitzeko" lanak kontratatzeko espedientea onartzea, Proiektua eta Baldintza Ekonomiko-Administratibo Partikularrak barne, eta esleipena publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez egitea.

2.- Presako prozedura onartzea, aipatutako lege xedapenaren 96. artikuluekin bat etorritz.

3.- Gastua onartzea.

4.- Esleipen prozedura hastea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du.

1º.-Aprobar el expediente de contratación de la obra de "Rehabilitación parcial de la Plaza San Miguel de Irura", incluido el Proyecto y las Cláusulas Económico-Administrativas Particulares, siendo el procedimiento de adjudicación el negociado sin publicidad.

2º.-Aprobar la aplicación del procedimiento de urgencia, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 96 de dicha disposición legal.

3º.-La aprobación del gasto correspondiente.

4º.-Iniciar el procedimiento de adjudicación.

Este es un acto definitivo en vía administrativa.

SEIGARREN GAIA

MARIA JESÚS OTAÑO ZUMETA ZINEGOTZIAREN DIMISIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzari jakinarazi zaio M^a Jesus Otaño Zumeta udaleko zinegotziak bere karguari uko egiten diola arrazoi pertsonalak direla-eta. 2010eko urtarrilaren 26ko data duen idatziaren bidez egin dio uko.

Udalbatzak aho batez erabaki du jakitun dagoela adieraztea.

Se da cuenta de que por parte de D^a M^a Jesús Otaño Zumeta, concejal de este Ayuntamiento y mediante escrito de fecha 26 de enero de 2010, se presenta renuncia al cargo por motivos personales.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes darse por enterada.

ZAZPIGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO UEMARI 2010AN EGIN BEHARREKO EKARPENA.

2009ko abenduaren 12an, Zestoan egindako Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Batzar Nagusiak, 2010ko kuota onartu zuen, eta Irurari dagokion kuota hau da: 6.227 €.

Udalbatzak aho batez onartu du, UEMari, Irurako Udalerri aipatutako kontzeptuengatik egin beharreko ekarpenaren ordainketa egitea.

ZORTZIGARREN GAIA

LOATZO UDALERRIEN MANKOMUNITATEAREN 2010RAKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko uztailaren 4an, Irura Udalerria Loatzo Musika Eskola Mankomunitatean bazkide gisa sartzeko proposamena onartu egin zuen.

Loatzo Udalerrien Mankomunitateko batzorde eragileak onartutako aurrekontuaren arabera, Irurako Udalari dagokion ekarpenaren zenbatekoa 48.755,24 €-koa da. Bi epetan egingo da.

Udalbatzak aho batez onartu du, Loatzo Udalerrien Mankomunitateko batzorde eragileak onartutako aurrekontu orokorraren arabera Irurako Udalak egin beharreko ekarpenaren lehengo zatiaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazio bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

BEDERATZIGARREN GAIA

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN 2010RAKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Tolosaldeko Mankomunitateak igortzen du 2010ko Irurako ekarpena, eta hau da: 101.251,14 €.

Hori dela eta udalbatzak aho batez onartzen du.

HAMARGARREN GAIA

TOLOSALDEA GARATZEN 2010RAKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Tolosaldea Garatzenek 2009ko abenduaren 12ko Batzar Orokorrean onartu zuen Gestio Plana bertan 2010 urterako Irurako udalak egin beharreko ekarpena, eta hau da: 6.143,00 €.

Hori dela eta udalbatzak aho batez onartzen du.

HAMAIKAGARREN GAIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKI-ERAKUNDEENTZAKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUAREN EDUKIEI ATXIKITZEKO ERABAKI PROPOSAMENA.

Azken urteotan administrazio publikoetan gutako bakoitzari buruz dauzkagun datu pertsonalak babestu beharraz ohartu da gizartea eta babestu beharrendaren kontzientzia etengabe zabaltzen ari da; izan ere, gaur egun behin eta berriz eskatzen baitute gizartean datu horiek babesteko, bereziki datu pertsonalen

gaineko informazioaren erabilera txarrak ekar ditzakeen ondorioak ikusirik.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenak pertsonen intimitatearen aurkako arriskuak ekar ditzake, datu pertsonalak eskuratzea eta datu horiek tratatzea ahalbideratzen duten neurrian. Horregatik Datu pertsonalak kontrolatzea eta babestea ezinbesteko eginkizuna bihurtu da. Helburua da pertsonak euren datu pertsonalen gaineko kontrola izatea, eta, horrela, euren duintasunarentzako kaltegarriak diren edo zilegi ez diren erabilerak saihestu ahal izatea.

Beraz, baieztatu daiteke gaur egun datu pertsonalen tratamenduak direla eta, pertsona fisikoen ohorea eta norberaren nahiz familiaren intimitatea bermatzea eta babestea toki-erakundeon halabeharrezko betebeharra legala dela. Hori dela eta, egoki ikusten da Irurako Udala EUDELeK Kode Eredu gisa datu pertsonalak babestearen gainean Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko toki-erakundeentzat onartutako Jardunbide Egokien Eskuliburuaren edukiei atxikitzea, hala pertsona fisikoen gainean dugun informazioaren konfidentzialtasuna, nola fitxategietan, datuen tratamendurako zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan gorde behar den segurtasuna bermatzeko balio duelako, bai eta datuen tratamendu-lanetan ari garen pertsonok gure eguneroko lana pertsonak ematen dizkiguten beraien nortasunaren datuen erabilera onarekin bateratzeko dugun betebeharra beteko dela bermatzeko.

Hori horrela, Irurako Udaltzako honako erabakia hartu du:

“1. Datu pertsonalak babestearen gainean EUDELeK Kode Eredu gisa Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko toki-erakundeentzat onartutako Jardunbide Egokien Eskuliburuaren edukiekiko Irurako Udalaren atxikipena onestea, gidaliburu honen helburua datu pertsonalen tratamenduaren eremuan herritarrekin jarduteko moduari buruz langile zein udal-kideei informazioa emateko jarraibide praktikoak ematea izanik.

2. Atxikipen hau borondatezkoa eta datu pertsonalen babeserako indarrean dagoen araudia betetzeko Irurako Udalari dagokion betebeharrak apartekoa da, eta aipaturiko Jardunbide Egokien Eskuliburuan biltzen diren xedapenak bete beharra suposatzen du.

3. Gure udalean Jardunbide Egokien Eskuliburu hau ezartzeko (zerbitzu edo unitate organikoa)-(a)ren gain uzten da eskuliburuaren eranskinetan jasotzen diren prozedurak, herritarrek ARCO delakoa eskubideez baliatzeko inprimakiak eta eredu-tipoak gure erakundearen errealitate bereziari 6 hilabeteko epean egokitzeko egin behar den guztia egitea.

4. Idazkari-kontuhartzaile jn/and Irurako Udala eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren arteko harremanetarako datu babesaren arloko koordinatzaile izendatzea.

5. Irurako Udalak bertako langileei eta, batez ere, datu delikatuak edo bereziki babestutakoak tratatzen dituztenei zuzendutako informazio-jarduerak eta trebakuntza-ekintzak aldian-aldian planifikatzeko konpromisoa hartzen du, bai eta erakundearen zerbitzura dauden pertsonen Jardunbide Egokien Eskuliburuan aurreikusitako dekalogo emateko ere, datu-babesaren oinarritzko printzipioekin, herritarren eskubideekin eta datu pertsonalen arloan Udal Korporazioak dituen betebeharrekin sentsibilizatu daitezten.

6. Irurako Udalak Jardunbide Egokien Eskuliburuan ezarritakoa betetzen den ala ez ikusteko prozedura onartzen du, bai horiek bete ezean ezar daitezkeen zehapenak ere.

7. EUDELI honako atxikipen-akordioaren berri ematea, Irurako Udala datu pertsonalak babestearen gainean Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko toki-erakundeentzako Jardunbide Egokien Eskuliburuaren edukiei atxikitako toki-erakundeen zerrendan sar dezan”.

HAMABIGARREN GAIA

GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAREN 2010ERA KO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gipuzkoako Urak Kontsortzioak, azpiegituren finantziazioari dagokion faktura igorri du. Faktura hau, 2010. urtearen lehenengo zatiari dagokio eta Gipuzkoako Urak Kontsortzioaren saneamendu planari egokitzen zaio. Bestalde, uren kalitatea zaindu eta neurtzeari dagokionez, urte osoari dagokion faktura aurkeztu du.

Lehenengoko fakturaren zenbatekoa 18.948,50 €-koa da BEZ barne eta 2010ko maiatzaren 25a baino lehen egin behar da ordainketa. Bigarrenengo fakturaren zenbatekoa 2.156,85 €-koa da BEZ barne eta 2010ko irailaren 30a baino lehen egin behar da ordainketa.

Udalbatzak aho batez onartu du, Gipuzkoako Urak kontsortzioaren barruan, Irurako Udalarari aipatutako kontzeptuengatik Mankomunitateari egin beharreko ekarpenaren lehenengo zatiaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazio bidean. Beraren aurka,

administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMAHIRUGARREN GAIA
IRURAKO UDALAREN AZPIEGITUREN ZERBITZUAK
ERABILTZEKO EUSKALTELEKIN HITZARMENA ONARTZEA, HALA
BADAGOKIO.

Euskaltelekin Hitzarmen bat egiteko proposamenaren berri eman da. Hitzarmen horren bidez, Euskaltelek udal azpiegiturak (tutuak) erabiliko lituzke bere telekomunikazio azpiegitura ezartzeko Katategi industrialdeko zati batean.

Se da cuenta de la propuesta de Convenio con Euskaltel para utilización de las infraestructuras municipales (tuberías) para la implantación de la infraestructura de telecomunicaciones de dicha empresa en parte de la zona industrial Katategi.

Horiek horrela, Udalbatzak hauxe erabaki du aho batez:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

1.- Aipatutako hitzarmena onartzea.

1º.- Aprobar el citado convenio.

2.- Alkate-Lehendakari andreari ahalmena ematea, Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, aipatutako hitzarmena izenpetzeko.

2º.- Autorizar a la Alcalde-Presidente para su firma, en nombre y representación del Ayuntamiento.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMALAU GARREN GAIA
GALDE ERREGUAK.-

Galde-erreguen tartean gai hauek aztertu dira:

a) Irurako Jubilatuen Elkartearen diru-laguntza eskaera eta gizarte laguntzailearen txostena ikusita, alkatearen dekretuaren bidez diru-laguntza ematea erabaki da.

b) Irurako Ikastolarekin egindako bileraren berri eman du alkateak. Bertan, Ikastolak eraikinen gastu arruntak finantzatzeko hitzarmen bat sinatzea eskatu zuen.

c)Anoetako Ikastolarekin egindako bileraren berri eman du alkateak. Bertan, Ikastolak gastu arruntentzako laguntza ematea eskatu zuen, kontuan hartuta Irurako hainbat ikasle dauzkatela.

d)San Migel plaza autoentzat ixtea eztabaidatu zen herri batzarrean, eta ondoren iradokizunak aurkezteko epea zabaldu zen. Emaidzak jaso eta ikusi ondoren, lau edo bost aurka eta hamar alde, San Migel plaza autoentzat ixteko prozedura hastea erabaki da.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, 21:30ean eman da amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari nauzuen honek dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA